

DOKTORE BERRIAK UPV/EHU_n DOKTOREGO ONDOKO PRESTAKUNTZA PROGRAMETAN SARTU ARTE KONTRATATZEKO DEIALDIA (2020-II): Ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrenda

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak (IGBB) oniritzia emanda, eta Gobernu Kontseiluak onartu ondoren, hona Ikerketaren arloko Errektoreordetzak (aurrerantzean IAE) argitaratutako

DOKTORE BERRIAK UPV/EHU_n DOKTOREGO ONDOKO PRESTAKUNTZA PROGRAMETAN SARTU ARTE KONTRATATZEKO DEIALDIA (2020-II):

Behin eskaerak aurkezteko epea amaituta, IAEko Ikerketaren Gestioko Zuzendaritzak aurkeztutako eskaerak berrikusi ditu.

Tramite horrekin amaitutakoan, onartutako eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda argitaratu zen IAEren webgunean, zuzenketak egin behar dituzten eskaerak zehaztuz ere.

Zuzenketak egiteko epea amaituta, IAEk ERABAKI DU onartutako eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrenda bere webgunean argitaratzea, ebaluazio fasera igarotze aldera.

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko, inola ere aldi berean erabilita:

1.- Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsioa aurkez dakiok erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita.. Administrazioarekiko errekurtsio hau jarriz gero, eta errekurtsioa jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsioa ezetsi dela ulertu beharko da administrazioaren isiltasunagatik; eta, honela gertatuz gero, datorren idatz zatian ezarritako auzibidera jotzeko aukera izango da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsioa ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontaktzen hasita (Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 40/2015 legea eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legea).

2.- Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 8.3 eta 46. artikulua).

OHAR GARRANTZITSUA:

Aurkeztutako eskaerak askotxo izan direnez eta eskaera egin dutenei lehenbailehen erantzun nahi diegunez, eskatzen dizuegu kontsulta guztiak posta elektronikoz egiteko (pre-postdoc.dgi@ehu.eus), **mezuaren gaian "DOKBERRI Deialdia" adierazita.**

Leioan, 2020ko azaroaren 17an.

IKERKETAKO DEIALDIEN ATALA
Ikerketaren arloko Errektoreordetza